

Aurkezpena

Dagoeneko hamarkada bat igaro da Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko (GEZKI) Zuzendariak, Baleren Bakaikoa, ordurarte egitasmo polit hutsa zena abiarazi zuenetik: Euskal Herrian Gizarte Ekonomiari buruzko aldizkari zientifiko bat sortzea, «zorroztasunean oinarritua, eta eztabaida akademikoari kalitatezko ekarpena egiteko asmoz», 0 zenbakiko aldizkariaren hitzaurrean Pérez de Uraldek zioen moduan.

Horrela, 2004ko irailan jaio zen aldizkaria, hutsune bat betetzeko, eta Gizarte Ekonomiako ikerlari guztien topagune bihurtzeko erronkarekin. Hasieran, funtsean, Euskadiko esparrua bereganatu zuen, eta ondoren Estatuko eta atzerriko ekarpenak jaso ditu. Horretarako, garrantzi handia eduki du ondokoen laguntzak: CIRIEC; Ekonomia publiko, gizarte ekonomia eta ekonomia kooperatiboko aldizkaria; aldizkariko ebaluatzaileak eta batzorde zientifikoko kideak, beren unibertsitateetatik bidalitako lanekin lagundu dutenak. Beraz, gaur aldizkariak hamar urte bete ditu, eta Gizarte Ekonomiaren esparruan sendotutako aldizkaria dela esan dezakegu. Bide horretan, beren ekarpena egindako jende askori eskerrak eman beharra dago: egile guztiei, koordinatzaileei, argitaletxeari, GEZKIri, Eusko Jaurlaritzari, eta oso bereziki Santiago Merino eta Baleren Bakaikoari, lehen zortzi urteetan aldizkaria zuzendu zutelako. Baleren Bakaikoa beraren hitzetan «GEZKIko aitzindariak» izan ziren.

Horregatik prestatu dugu ezohiko ale hau, bildumako beste zenbaki bat ez dena, zenbaki berezia baizik, euskera hutsez, hamargarren urteurrena ospatzeko eta Baleren Bakaikoa eta Santiago Merino omentzeko, Euskadin gizarte ekonomiaren garapen zientifikoari egin dioten ekarpenagatik.

Ezin dut bukatu eskertu gabe UPV/EHUren finantziarioa, UFI 11/40en bitartez: Hegoa, garapenari buruzko Ikasketak. Bertan, UPV/EHUko bi Unibertsitate Institutuk parte hartzen dute (Hegoa Institutuak eta Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuak, GEZKI), eta kon-

tsolidatutako hiru ikerketa taldek, horietako bi Hegoa Institutuko ikerlariz osatuta, eta hirugarrena Soziologia I Saileko kidez osatua, ezohiko ale honetan beren ekarpena egin dutenak.

Sofia Arana Landín
Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkariaren Zuzendaria (GEEA)